

Euskal Herria ezagutuz

## SANTA GRAZI (ZUBEROA)

# La Verna, espeleologia denen eskura

Espeleologok atzeman zuten leizean argindarra ekoizteko parada ikusi zuen EDF Frantziako energia enpresa publikoak behinola. Mendian bidea egin eta tunel bat zulatu zuten, baina xedea bertan behera gelditu zen, SHEMA enpresa pribatuak zentrala egin arte. EDFk garai batean ireki bidetik pasatzen dira gaur egun bisitariak munduko leize handienetarikoa sartzeko. Santa Grazitik bi ordu eta erdiko ibilbidea eginez iristen da La Vernara.

| JOANES ETXEBARRIA |

LA VERNA leizea, eta San Martiko amildegia oro har, espeleologok dute hobekien ezagutzen. La Verna bera ez litzateke publiko zabalean ezagutuko lur azpiko hainbat espedizioi esker ez balitz. Leize erraldoia atzeman aitzin, 1952an, Marcel Loubens espeleologoak bizitza galdu zuen harako bidean. Eta ez zen bakarria izan. Gaur egun, autobusean edo autoan ere iritsi daiteke sarrerara, bi ordu eta erdiko ibilaldia oinez egin nahi ez bada, edo egin ezin bada. Gunea ezinduei ere ego-

kitua baitzaie. 660 metroko tunela zeharkaturik bisitatu daiteke, kasakoa buruan baina lasai-lasai, munduko leizerik handienetako bat.

### Sei Notre-Dame sartzeko adina

194 metro goratasun, 240 metro zabalera, haren handitasunaz oharatzeko aipatu ohi da Pariseko sei Notre-Dame katedral sartzten ahal liratekeela leizean. Gaur egun bertaraten denak eskala begi-bistan du, leizeko xoko guztietan ezarriak diren 1,80 metroko goratasuneko maniki

esker. Halere, La Vernaren tamaina ezin da esplikatatu datuekin. Harrigarria da. Globo gidatu bat puztu eta hegan jartzeraino –2003an–. Handitasunaz gain, leizea noiz eta nola sortu zen, Pirinioak sortu aitzineko arroken presentzia... lur azpiko gela erraldoiak badu interesa.

Interes pribatua ere bai. SHEMA enpresa frantsesak La Vernako ur jauziaren indarra baliatuz argindarra ekoizten du bertan, eta gela guztia argiztatzeko baliatzen dute, besteak beste. 2.000 bat etxetara ere



## ITSAS MENDI

Karabanak eta autokarabanak



- ▶ Europako marka garrantzitsuenak :  
KNAUS, BENIMAR, HOBBY,  
BAVARIA, PILOTE.
- ▶ Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua.

E-posta: [itsasmendi@itsasmendi.com](mailto:itsasmendi@itsasmendi.com) / [www.itsasmendi.com](http://www.itsasmendi.com)


Errep. Nazionala 1 - 20140 Andoain (GIPUZKOA)

Tel. 943 59 32 90 - Faxa: 943 59 41 73

J.F. GODART



Gaur egun La Vernara sartzten denak eskala begi-bistan du, leizeko xoko guztietan ezarriak diren 1,80 metro goratasuneko manikiei esker. Halere, La Vernaren tamaina ezin da esplikatu datuekin, harrigarria da. Globo gidatu bat puztu eta hegan jartzeraino (ikus eskuineko beheko argazkia).



J.F. GODART



SERGE CALEAULT / SPÉLÉO MAGAZINE

iristen da argindarra bertatik. Zentral elektrikoa egitearen ideia EDF enpresa publikoarena izan zen hasieran. Hain zuzen, EDFk zuen, helburu horrekin, mendian gaindi bidea ireki leizearen sarreraraino, baita harrian tunela zulatu ere. Xedea bertan behera utzi eta zentrala enpresa pribatuak egin zuen azkenean. Bidea eta tunela bisitariek baliatzen dituzte egun.

La Verna bisitatzeko manera desberdinak badira, erosoenetik kirola-

rienera. Oren bateko bisitan, tunela zeharkatu eta bazter batean dauden terrazetatik gela osoa ikus daiteke. Oren bat edo biko bisitetan aldiz, talde handiak joan daitezke, 30 pertsona arte, leizearen isiltasunak duen magia desagerraraziz gehienean. Argibideak ere, espeleologoen abenturetatik leizearen formioraino, zale-zale egiten dira, datu andana bat asimilatzea eragotzirik. Beste formulak ere proposatzen dituzte Santa Graziko harrera

gunean. Eta prezioak, araberakoak: ordu bateko bisita hamazazpi eurotan, bi ordukoa 27 eurotan eta abentura deitzen dutena, hots esplorazioa, 230 eurotik aitzina bosteko talde batentzat, nahi den denboraren arabera. ■

### Informazioa

[www.laverna.fr](http://www.laverna.fr) webgunean



LIZARRA  
KANPINA

Lizarra (Nafarroa)  
☎ 948 55 17 33  
[www.campinglizarra.com](http://www.campinglizarra.com)



Aldori landetxea

Zabale, 8 · Muxika (Bizkaia)  
☎ 94 627 15 09  
[www.aldori.es](http://www.aldori.es)